

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2014ko UZTAILAREN 30ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2014ko uztailaren 30ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Imanol Aranzabal Lasa  
Aritz Usandizaga Larrañaga  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa eta Jon Tejeria Otermin


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - **2014ko uztailaren 3an egindako ohiko bilkura.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **2013-2014 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea, hala badagokio.**
4. **Tolosaldeko "ataria"-k eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
5. **Olatza baserriko pabiloian teilatuko tejabana aldatzeko obra baimena eskaera, J.S.C.**
6. **Olatza baserriko pabiloian tabike bat egin eta hiru leiho jartzeko obra baimena eskaera, J.S.C.**
7. **Kultur etxea eta Udaletxearen garbiketa zerbitzua Lidoinsa enpresari esleitzea, hala bada.**
8. **Fakturak eta ordainketak.**
9. **Beste batzuk.**
10. **Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2014 urteko uztailaren 3ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### BIGARREN PUNTUA

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

12/2014 Alkatezta Ebazpena, uztailaren 29koa, 2014ko 2. Hiru hilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **2013-2014 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

Alkate-Lehendakari jaunak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andereak 2013-2014 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- 2013-2014 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.

BIGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

### LAUGARREN PUNTUA

#### **TOLOSALDEKO "ATARIA"-k EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L.-k, ATARIA-k eginiko diru-laguntza eskaera.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2014 urterako Tolosaldeko Euskal komunikabideen artean banatzeko Udal aurrekontuetan 1500 eurotako partida aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldeari, S.L. ATARIA-ri 500,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: 500€tako gastua onestea.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L. ATARIA-ri ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **OLATZA BASERRIKO PABILOIAN TEILATUKO TEJABANA ALDATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.S.C.**

Ikusirik J.S.C. jaunak eginiko eskaera, non Olatza baserriko pabiloian teilatuko tejabana aldatzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak 2014ko uztailaren 22an eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO OLATZA PABILOIKO TEILATUA KONPONTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**


*J.S.C.I. jaunak, Larraulgo Olatza pabiloiko teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen deskribapena, batz besteko aurrekontu orokor bat eta bi argazki aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako eskarian, eta itoginak direla medio, gaur egungo tejabana “panel sandwich” moduko batez ordezkatu nahi dela esaten da.*

*Estalduraren azalera 180m<sup>2</sup>koa dela esaten da eskaeran, egin beharreko lanen batz besteko aurrekontua 3.300€ izanik. Prezio honen barruan gaur egungo estalkiaren desmuntaiak eta garbigunera eramatea eta panel berria jartzea sartzen omen da.*

*Sinatzen duen teknikariaren arabera, lan horien aurrekontua 5.500€ inguruko izan beharko litzateke.*

*Aurkeztutako argazkietan teilatua fibrozementuzkoa dela ikusten da eta fatxadaren zati batzuk raseatu gabeko adreiluzkoak direla ere.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Olatzako pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º eta 66º artikulua.

### Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

### Artículo 66.-Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes

La reforma y rehabilitación será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.

1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc...

Sartu daitezkeen hondakin ezberdinei buruz, ingurugiro eta osasuneko araudiek esaten dutena jarraitu beharko da, ala nola, 112/2012-ko ekainaren 26-ko dekretuaren 9º artikulua dioena:

“9 artikulua.-Obra txikietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak.


Obra txikietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak hauek dituzte:

a)Hondakinaren ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan gutxienez:

1.-Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).

2.-Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.

3.-Hondakin ez-arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*b) Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.*

*c) Ekoizleak eraikuntza eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.*

*Pabiloiaren teilatuan jarritako xaflak edo panelak teila kolorezkoak izan beharko dira eta fatxadan bistan dauden adreilu zatiak zarpiatu eta margotu beharko dira.*

*Fibrozementuzko xaflak amiantozkoak badira, neurri bereziak gorde beharko dira eta desmuntatzea enpresa espezializatu batek egin beharko du.*

*Beraz, aurrekoa betetzen bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.*

*Dena den, lanak hasi aurretik, ondoko bizilagunaren baimena ekarri beharko da udaletxera.*

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean, pabiloiaren egoera berria adierazten duen argazkiarekin batera.”*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- J.S.C.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Olatza pabiloiko teilatua konpontzeko obra baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari Teknikoak, 2014ko uztailaren 22an egindako txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira. **Lanak egiten hasi aurretik, Kendu behar dituen fibrozementuzko xaflak amiantozkoak diren ala ez dioen enpresa espezializatu batek eginiko txostena aurkeztu beharko du Udaletxe honetan.**

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### SEIGARREN PUNTUA

**OLATZA BASERRIKO PABILOIAN TABIKE BAT EGIN ETA HIRU LEIHO JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.S.C.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik J.S.C. jaunak eginiko eskaera, non Olatza baserriko pabiloian tabike bat egin portxea itxiz eta hiru leiho jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak 2014ko uztailaren 22an eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO OLATZA PABILOIKO PORTXEAN ITXITURA BAT JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.S.C.I. jaunak, Larraulgo Olatza pabiloiko alboko aterpea ixteko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen deskribapena, batz besteko aurrekontu orokor bat eta argazki bat aurkezten duelarik. I.S. izenean dagoen Gaztenek-eko ekintza plana ekartzen du dokumentazio gehigarri bezala. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako eskaeran, eta hezetasunak direla medio, gaur egungo alboko portxea adreiluzko tabike eta 3 lehioz itxi nahi duela adierazten da, lanen aurrekontua 200€-koa izanik. Ez da planorik edo proiekturik aurkezten. Ez da azalera zehazten. Aurkeztutako Ekintza Planak, ez du teknikari batek sinatutako jarduera proiektua bezala balio.*

*Udaletxean dagoen espedientearen arabera pabiloi nagusia 1991-ean eraiki zen Jose Antonio Prieto Visedo nekazaritzako ingeniariak idatzitako proiektu bisatua jarraituz. 1995-ean ukuilu ondoan siloa egiteko udal baimena eskatu zuen eta 1998-ean momentu honetan dagokigun alboko eranskin irekia.*

*2012-ko ekainean, aurreko urteetan egindako lanak legeztatu ziren denak bateratzen zituen dokumentazioarekin. Bertako jarduera oraindik ez dago legeztatua.*


*Sinatzen duen teknikariaren arabera, alboko aterpearen ixteak eraikigarritasun zabalpen bat litzateke.*

*Olatza pabiloia, Larraulgo lur ez hiritargarriaren D20 produkzio zonaldearen barruan kokaturik dago, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko da, bereziki 48º eta 62 eta 66 artikulua.*

#### Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones

*-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*-Como material de fachada se utilizará el **revoco pintado** y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

### Artículo 62.- Tramitación de licencias en el Suelo No Urbanizable

...

*Para la solicitud de licencias de realización de obras e instalaciones que guarden relación con el destino de la finca sobre la que se asienten, basta la presentación en el Ayuntamiento del correspondiente proyecto técnico (3 ejemplares), visado por el respectivo colegio profesional-en el caso de que la envergadura de la obra así lo exija acompañado del informe favorable del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

*De cualquier forma, en el caso de que las obras, a juicio del Ayuntamiento, no exijan por sus características y envergadura la redacción de un proyecto técnico, bastará adjuntar a la solicitud de licencia correspondiente un plano de situación y otro de emplazamiento a las escalas especificadas, pudiendo el Ayuntamiento, si lo considera oportuno, dispensar de la obligación de presentar el informe del Departamento de Agricultura del organismo competente.*

*En todas las solicitudes de licencia de obras o actuaciones en el suelo no urbanizable, juntamente con el proyecto o documentación de solicitud correspondiente, se presentará un plano de situación a escala 1:5000.*

*No se autorizará la apertura de nuevos caminos o en su caso pistas, mientras no se justifique, mediante proyecto realizado por técnico competente, su necesidad para un aprovechamiento agrícola o forestal.*

...

***Las solicitudes de licencia para las construcciones destinadas a explotaciones agrícolas y ganaderas que guarden relación con la naturaleza y destino de la finca deben acompañar informe favorable del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral.***

### Artículo 66.-Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes

*La reforma y rehabilitación será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.*


*1.- Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.*

*2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.*

*Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc...*

***3.-La rehabilitación integral del caserío (o edificio) conllevará la desaparición de txabolas, anejos y tejavanas de forma que mejoren tanto la funcionalidad del edificio con la explotación agraria como su aspecto exterior.***

*Pabiloian eta lursailean egiten den jarduerari dagokionez, eta ingurumenaren lege berriaren arabera (Ley 3/1998, Protección Medio Ambiente País Vasco modificada por L7/2012) **jarduera sailkatu** baten aurrean aurkitzen gara. Jarduera proiektua behar da.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Beraz, pabiloiaren zabalpena egiteko itxitura jasotzen duen proiektua ekarri beharko da udaletxera, ondoko jabearen baimenarekin batera.*

*Gainera, **jarduerarekin hasteko komunikazio bat aurkeztu beharko da udaletxean ere dagokion tekniko batek sinatutako jarduera proiektuarekin, erantzule bakarrak jardueraren titularra eta egiaztagiria eman duen teknikaria izanik.***

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.S.C. jaunak eginiko eskaera ukatu, udal teknikariak eginiko txostenean jarritako dokuntazioa ekarri arte.

BIGARRENA: J.S.C. jaunari jakinarazi jarduerarekin aurre egiteko dagokion JARDUERA PROIEKTUA Udaletxe honetan aurkeztu beharko duela.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

### ZAZPIGARREN PUNTUA

### **KULTUR ETXEA ETA UDALETXEAREN GARBIKETA ZERBITZUA LIDOINSA ENPRESARI ESLEITZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2013/2014 ikasturterako kultur etxearen garbiketa zerbitzua Larraulgo Udalak bere gain hartu zuela, Larraulgo Guraso Elkarteak jakitera eman zutenez, ez zutelako jarraitu behar zerbitzu hau eskaintzen.

Ikusirik Larraulgo Udalak zerbitzu hori prestatzeko bi aurrekontu eskatu zituela ZU ETA BOK eta LIDOINSA enpresei hain zuzen. Kontratu txiki bat zela kontutan hartuz.


Ikusirik Lidoinsa enpresaren aurrekontua egokiena zela, hilabetez esleitu zitzaion zerbitzua eskaintzera, proba modura, ondoren zerbitzua urte betez esleitu zitzaiolarik.

Ikusirik Lidoinsa enpresak txukun egin duela garbitasun zerbitzua 2013/2014 ikasturtean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: LIDOINSA enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko aurkezturiko aurrekontua onestea eta zerbitzua esleitzea, esleipena 2015eko abuztuaren 31rarte izango da, ondorengo delarik aurkezturiko aurrekontua:

Garbiketa:

Kultur etxea: Egunero 1.5 ordu ( 0.5+1)

Udala: Astean 1.5ordu

Orduko prezioa: 19.5euro

Eraikin bakoitzean kristalak garbitzeko bi ordu eta erdi beharko dira, proposamena Udaletxea urtean behin eta Kultur etxea urtean hiru edo lau aldiz.

Orduko prezioa: 19,50 euro.

BIGARRENA:LIDOINSA enpresari jakinaraztea, Udalaren esku egongo dela, garbitasunari buruz kezak badaude edo fakturarekin adostasun faltak sortzen badira, edozein momentutan kontratua moztu ahal izango duela, inolako kalte-ordainik gabe.


HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri LIDOINSA-ri ematea.

### ZORTZIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KOLDO JAUREGI	81,68
ULAHI	363,00
VEDISCOBA, S.L.	326,28
AITZOL	31,32
LIDOINSA	755,04
OIBERDIN	48.878,68
URA	28,38
HOSTEMAN	424,95
IZFE	1.816,62
BERRI LANTEGIA	106,65
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	3.864,16
GAS NATUTAL FENOSA	193,36
REPSOL	7,88
REPSOL	140,00
REPSOL	12,73
MOVISTAR	17,81
MOVISTAR	59,94
MOVISTAR	133,63

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **57.239,11** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

#### **BESTE BATZUK**

#### **9.1. UDAL ARTXIBOAREN MANTENU LANAK ESLEITZEKO ERABAKIA.**

Ikusirik Larraulgo Udal artxiboa mantentzeko lanak egiteko proposamen bat eskatu dela, Consuelo Urteaga artxibo antolaketa S.L. -ri, orain dela 2 urte eginiko enpresari. Ondorengo delarik:

*Larraulgo udal artxiboko 2011-2012 urteko mantenimendu lanak egiteko proposamena.*

*Udaletxeko hirigintza, ogasuna, kultura, Idazkaritza, euskara eta gizarte Laguntza departamentuak sortutako dokumentazioa antolatuko da. Dokumentazioa tramitazioaren arabera ordenatu eta KNOSYS basean sartuko dira.*

*Aurrekontua: 1.089 euro (BEZ barne).*

*Lana irailean egingo da.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

### ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Consuelo Urteaga Uria andreari, Larraulgo Udal artxiboaren mantenimendu lanak egiteko kontratua esleitzea, 1.089 euroko kostua izango duelarik (BEZ barne). Mantenu lanak ondorengoak izango direlarik:

*Udaletxeko hirigintza, ogasuna, kultura, Idazkaritza, euskara eta gizarte Laguntza departamentuak sortutako dokumentazioa antolatuko da. Dokumentazioa tramitazioaren arabera ordenatu eta KNOSYS basean sartuko dira.*

BIGARRENA: 1.089 euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Consuelo Urteaga Uria andreari ematea.

#### **9.2.LARRAULGO AGIÑEZABAL HANDI BASERRIAREN SOROHAUNDI ZELAIAN, EGITEN ARI DEN ERAIKINEAN, LIZENTZIARIK GABE EGINDAKO LANEN GELDITZEA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Udalbatza honek berri izan duela Agiñezabal Handi baserriaren sorohaundi zelaian egiten ari den eraikinean, proiektutik kanpo eta lizentziarik gabe obra batzuk gauzaten hari direla.

Ikusirik ekainaren 30eko 2/2006 Legea Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 219 eta ondorengo artikulak.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Agiñezabal Handi baserriaren sorohaundi zelaian egiten ari den eraikinean proiektutik kanpo eta baimenik gabe egindako lanak eteteko agindua onestea.

**BIGARRENA:** K.I. jaunari, obra hauen jabe bezala, erabaki hau jakinaraztea. Ohartaraziz, eteteko agindua hausten bada, hertsatze-isunak ezarriko dira agindua hausten den bitartean: hilabete bakoitzeko bat. Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa, hain zuzen, jarraian adierazten diren zenbatekoetatik handiena izango da: ezkutuko jardueraren balioaren % 10 edo 600 euro.

**HIRUGARRENA:** K.I. jaunari ohartaraztea hilabeteko epea izango duela egindako ezkutuko obrak legeztatze, dagokion eskaera, Udaletxean egiteko.

**LAUGARRENA:** K.I. jaunari ohartaraztea etendako obrak legeztagarriak ez balira, edo goian aipaturiko epean ez bada eskaerarik egiten, Udalak erabaki dezakeela egindako obrak botatzea, interesatuak ordaindu beharko dituelarik.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

### **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.45 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA